

Txandakako aparkalekuen kontrola arautzeko Udal Ordenantzari hasierako onespena eman, eta berau jendaurrean jartzea onetsi zuen Basauriko Udalbatzak, 2016ko abenduaren 29an egindako ohiko osoko bilkuran. Jendaurrean egon den aldian zehar ez da alegaziorik aurkeztu eta, beraz, Ordenantza behin betiko onetsita geratu da. Orain, aipatutako Ordenantzaren testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea dagokio.

BASAURIN TXANDAKAKO APARKALEKUEN KONTROLA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA

ZIOEN ADIERAZPENA

Ordenantza honen xedea da Basauri udalerrian txandakako aparkalekuak antolatzea eta arautzea. Trafikoari, motordun ibilgailuen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko indarreko Legeak eskumena ematen die udalerriei beren mugarteko bide eta hiri-eremuak arautzeko, ordenantza bidez.

Horrenbestez, denbora-tarte mugatu batean zehar aparkatzeko guneak eratuko dira udalerrian, ibilgailuek txandaka erabil ditzaten: aparkalekuak urriak dira herrian, eta bidezkoa da herritar guztiek erabili ahal izatea aparkaleku horiek, txandaka. Sistema bete egiten dela bermatzeko neurri zuzentzaileak ere ezarriko dira.

1. ARTIKULUA. APLIKAZIO EREMUA.

Basauriko udal-mugartean aplikatuko da Ordenantza hau. Txandakako aparkalekua ezarriko den guneak behar bezala mugatu eta seinaleztatuko dira, seinale horizontal eta bertikalekin.

2. ARTIKULUA. TASAK.

Basauriko Udalak tasa bat kobratu nahi izango balu aparkatzearen truke, Udalbatzak onetsitako tarifak aplikatuko lirateke —eta tarifa horiek dagokion ordenantza fiskalean jasoko lirateke—.

3. ARTIKULUA. ARAUTUTAKO APARKALEKUEN EGUNAK, ORDUTEGIAK ETA IRAUPENA.

1.- 3.500 kg-rainoko ibilgailuek, gehienez ere, 2 orduz aparkatu ahal izango dute. Epe hori igaro eta gero, 2 ordu itxaron beharko dute araututako eremuan berriro aparkatzeko.

2.- Jarraian adierazitako egun eta ordutegietan egongo dira indarrean aparkatzeko mugak:

- Astelehenetik ostiralera: 09:00etatik 13:30era, eta 16:00etatik 22:00etara.
- Larunbatetan: 09:00etatik 13:30era.

- Larunbat arratsaldeetan eta jaiegunetan: mugarik gabe aparkatu ahal izango da.

3.- Adierazitako ordutegia eten, aldatu edota handitu ahalko da alkatetza dekretu bidez, unean-unean, honako arrazoi hauek medio: segurtasuna; obrak; interes publikoa; kultura ekitaldiak; kirol ekitaldiak; eta abar. Edozelan ere, Udaltzari horren berri eman beharko zaio.

4. ARTIKULUA. SALBUETSITAKO IBILGAILUAK ETA GUNEAK.

Denbora-mugarik gabe aparkatu ahalko dute honako ibilgailu hauek:

- a) Motozikletak, ziklomotorrak eta bizikletak, aparkaleku mugaturako tokietan ez badaude, eta haientzako gordetako tokietan aparkatzen badute.
- b) Erreserbatutako gunetan aparkatuta egon arren, beren kategoria eta jarduerarako udal baimena duten ibilgailuak.
- c) Larrialdietako ibilgailuak, anbulantziak, suhiltzaileenak, Gurutze Gorriarenak, DYArenek eta Udaltzaingoarenak, jardunean daudenean.
- d) Barruan gidaria edo bidaiariaren bat duten ibilgailuak, bost minutu baino gutxiago badaude aparkatuta.
- e) Desgaitasunak dituzten pertsonen autoak, edo bereziki egokitutakoak. Desgaitasunak dituzten pertsona horiek izan beharko dira zirkulazio-baimenaren titularrak, eta ibilgailua beraiek erabili beharko dute, horrelako ibilgailuentzako bereziki gordetako tokietan.

5. ARTIKULUA. APARKATZEKO ARAUAK. APARKATXARTELA.

Txandakako gunetan aparkatzeko, arau orokor eta berezi guztiak betetzeaz gain, eta seinaleak errespetatzeaz gain, aparkatzean makina automatikoak emandako tiketa jarri beharko da ibilgailu barruan, haizetakoan, ondo ikusten den toki batean. Bereizgarri hori lortzeko, ibilgailuaren matrikula sartu beharko da makina automatikoan. Aparkatzen deneko eguna, hila eta ordua jasoko ditu aipatutako tiket horrek.

6. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEAK.

Ordenantza honen aurkako arau-haustek izango dira:

- a) Aparkatzeko bereizgarrian jasotako denbora-muga gainditzea.
- b) Ordenantzak aurreikusitako bereizgarririk gabe aparkatzea, edota hura ez jartzea ikusteko moduko toki batean.
- c) Gune berean aparkatzea, bertako gehienezko epea agortu eta gero, eta bi orduko gutxieneko tartea igaro gabe.
- d) Erabilitako bereizgarria aldatua, baliogabetua edo iraungia egotea; edota bertan jasotako matrikula zuzena edo egokia ez izatea.

7. ARTIKULUA. ZEHAPENAK.

6. artikuluan aipatutako arau-hausteei 60,00 euroko isuna jarriko zaie.

Isunak, honako hauetan oinarrituko dira: trafikoari, motordun ibilgailuei eta bide-segurtasunari buruzko martxoaren 2ko Testu Artikulatua onetsi zuen 339/1990 Errege Dekretu Legegilearen V. titulua (zeina azaroaren 24ko 18/2009 Lege bidez aldatu baitzen); Basauriko Udalaren Zirkulazioari buruzko Ordenantza; eta gainerako xedapenak.

8. ARTIKULUA. IBILGAILUAK ERAMATEA.

1.- Udaltzaingoak agindu ahalko du ibilgailu bat txandakako aparkalekutik Udal biltegira eramatea, ibilgailua aparkatuta baldin badago dagokion bereizgarririk gabe, edota baimendutako denboraren hirukoitza gainditu badu.

2.- Kasua hori bada, Zirkulazioari buruzko Udal Ordenantzak xedatutakoa aplikatuko da.

9. ARTIKULUA. IBILGAILUEK JASAN DITZAKETEN KALTE EDO OSTEENGATIKO ERANTZUKIZUNA.

1.- Basauriko Udala ez da aparkatzeko guneetan dauden ibilgailuek jasan ditzaketen kalte edo osten erantzulea izango.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGOA.- Aurrerantzean, Alkatetza Udalburutzak finkatuko ditu txandakako aparkalekurako guneen mugak —teknikari eskudunen aurretiazko txostenak aintzat hartuta—, eta xedatutakoaren berri emango dio Udalbatzari.

BIGARRENA.- Segurtasun Atalaren proposamen arrazoituan oinarrituta, Ordenantza honen aplikazioa eten ahalko du Alkatetza Udalburutzak, bere eskumenpeko lurralde-eremu osoan ala zati batean/batzuetan, egoki iritzitako aldi edo egunetan. Etetea xedatu ahalko da trafikoan edo aparkalekuetan emandako pilaketengatik, edota interes publikoko beste arrazoiengatik, eta, aurrera eramanez gero, Udalbatzari jakinarazi beharko zaio.

HIRUGARRENA.- Ordenantza honek aurreikusten ez dituen kontuetarako, Zirkulazioari buruzko Udal Ordenantza edota aplikagarri den gainerako legeriak xedatutakoa aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko onespena jaso duen testua oso-oso argitaratu, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikulua aurreikusitako epea igaro eta gero —eta artikulua horretan jasotako ondoreekin—. Hala xedatzen du aipatutako Legearen 70.2 artikulua.

Basaurin, 2017ko martxoaren 17a

ALKATEA,